

LITERATURA. Idazlearen sentiberatasuna ez ezik, haren objektibitate manikeismorik gabea ere goraipatu zuen

Txomin Peillen: «Sentimendu onekin liburu onak egitea lortu du Ugaldek»

XX. mendeko euskal idazlerik handienetakoa da, hizlariaren ustez, egunotan omendutakoa

Juan Luis Zabala | DONOSTIA

«XX. mende azkeneko euskal prosista handienetan» kokatu zuen atzo Martin Ugalde Txomin Peillen idazleak, Hamaika Bide elkarteak eratutako *Martin Ugaldek bere herria helburu* izeneko jardunaldien barruan, Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean eman zuen hitzaldian, eta Ugalde irakurtzea ez dela inondik ere aspergarria esanez azpimarratu zuen ideia hori.

Peillenen ustez, komenigarria litzateke «hobeki ezagutua izan dadin Ugalderen obra, eta batez ere gazteek irakur dezaten, berriz argitaratua izan dadin, ezen ez baldin badakigu nondik gatozen laster ez dakegu nora joan».

«Funtsari dagokionez, lortu du gutxitan erdietsi dena», esan zuen Peillenek, Ugalderi buruz mintzo: «Sentimendu onekin liburu onak egitea. Egia da, gaiak hala bultzaturik, baztertuak pertsonaiatzat harturik melodramaren muga dagoela, baina hizkuntzaren kontrolak eta egokitasunak ez dio irakurle onari irribarrerik eragingo».

«Martin Ugalde izango da euskal idazleetan bihotz minberena», Txomin Peillenen iritziz. «Bere eskarmentuz, berdintasunera hurbiltzeko bestea errespetatu behar dela ulertu du, eta horretarako ere, guztien gainetik hain gora edukitzen den sexu garapenaren gainetik, jendeak besteengandik, umetatik hasita —Mohameden ka-



PABLO S. QUIZA
Txomin Peillen hizlaria eta Gorka Aulestia aurkezlea, atzoko hitzaldiko une batean.

suan bezala, edo Pedrotxorenean— beharrezkoena bihozberatasuna, kariñoa, samurtasuna dela. Martin Ugaldek jendeak maite ditu eta apalduak maiteago».

Gerra aurreko idazleekin haustura: manikeismorik eza

«Gerra aurreko idazleekin den haustura handiena manikeoa ez izatea da Martin Ugalderen obran», Txomin Peillenen ustez. «Martin Ugalde gure gainetik dago, ez bakarrik bizitasunean, alderdi batekoa zela bazterturik lekukotasun objektiboa

eman digulako», aitortu zuen Peillenek, eta baita Ugalderen nobeletatik asko ikasi duela ere.

«Jon Mirandek eta Gabriel Arestik euskal literaturan 1950-1960 arte modernitatearen bideak urratu zituzten», adierazi zuen Peillenek, «eta hurrengo hamarkadan, 1960tik 1970era bitartekoan, Martin Ugalde osoki sartua ageri zaigu eta hamarkada horretako idazle handien artean bere lekua hartu du».

Ugalderen literaturaren balioaz mintzatu aurretik, haren idazkeraren hainbat alor azter-

tu zituen Peillenek: ereduak —Orixe, Resurreccion Maria Azkue, Jon Mirande eta Koldo Mitxelena aipatuz—, gaiak eta giroak, pertsonaiak, lekuak, bidaiak eta trenak, kontatzailea, hizkuntza eta hizketa erabilera, idaztanka, hiztegia... Zehaztasun handiz mintzatu zen Peillen, Ugalderen hainbat obratik ateratako pasarteak aipatuz.

Txomin Peillenek arratsaldean egin zuen bere saioa, baina eguarterean ere izan zen hitzaldirik Martin Ugalderi buruzko jardunaldietan. Txuma Lasaga-

ESANAK

TXOMIN PEILLEN

(Idazlea)

«Komeni da gazteek Ugalde irakur dezaten: nondik gatozen ez badakigu, laster ez dakikegu nora jo»

«XX. mende azkeneko prosista handienetakoa da, euskal idazleetan bihotz minberena»

«Gure gainetik dago: alderdi batekoa zela baztertuz, lekukotasun objektiboa eman digu»

baster Deustuko Unibertsitateko irakaslea, Pilar Rodriguez Columbia Unibertsitateko irakaslea, Iñaki Beti eta Larraitz Ariznabarreta Deustuko Unibertsitateko irakasleak, Jose Ramon Zubiaur Deustuko Unibertsitateko irakaslea, Mari Cruz Rodriguez Kentuckyko Unibertsitateko irakaslea eta Jose Luis Abellan Madrilgo Unibertsitate Complutenseko irakaslea mintzatu ziren, Deustuko Unibertsitateko Donostiako campuseko Humanitateetako Fakultatean.

GAURKO EGITARAUA


10:00: Jose Angel Askutze, Monica Jato, Antonio Chicharro, Jon Kortazar eta Xabier Apaolazaren hitzaldiak, Deustuko Unibertsitateko Humanitateetako Fakultateko Hitzaldi Aretuan (Donostiako Mundaiz auzoan).

18:30: Martin Ugalderi omenaldia: txistulariak, dantzariak, Martin Ugalde ipuin lehiaketaren sari banaketa eta Anjel Lertxundiren hitzaldia, Andoingo Udaletxean.

GABRIEL CELAYAREN POESIAREKIN AURREZ AURRE

SI ES VERDAD QUE ME LLAMO RAFAEL...

GABRIEL CELAYA



Erakusketa


2001eko urriaren 2tik 2001eko azaroaren 17ra

Asteartetik larunbata arte:
10:30-14:00/16:00-20:30

GANBARA aretoa

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

KM
kulturunea



Erakusketa

2001eko irailak 20 - azaroak 17

Asteartetik larunbatera: 10:30 - 14:00 / 16:00 - 20:30.

Bisitaldi gidatuak: taldeentzat, astelehenetik ostiralera.

Ikusleari irekiak, asteazkenero 19:30etan.

Informazioa: 943 482756

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



GENERALITAT VALENCIANA
CONSSELLERIA DE CULTURA I TURISME

Koldo Mitxelena Kulturunea.
Urdaneta kalea 9, 20006 Donostia - San Sebastián
Tf: 943 482750. Fax: 943 482755.
sala@kultura.gipuzkoa.net. www.gipuzkoa.net/kultura/km